

2021-09-03 / 701. ZENBAKIA / 17. URTEA
 BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Esne Martxa

Eskualdeko baserritarrek protesta ikusgarria egin zuten, aurreko astean / 2-3



Anne Fernandez Diez
 tindaketa naturala
 lantzen duen
 urnietarra da / 10-11



Manuel Larramendi
 Kultur Bazkunak
 erakusketa antolatu
 du, "Andoingo Gudua"
 ardatz hartuta / 8-9

AHAZTUAK
EMAKUMEAK
BERTAN ZIREN ETA
BERTAN ARI DIRA

ANDOINGO GUDUA
 1837/89/14
ERAKUSKETA

Sarrera duan
 Ordulegia:
 Astelcheuetik ostiralera: 18:30 - 20:00
 Larunbatetik: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30
 Bisita gidatuak
 Izeia emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoingo.eus

Irailaren 10etik 25era bitartean
 Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

ANDOINGO UDALA
 Hezkuntza eta Kultura
 Batzordea

MANUEL LARRAMENDI
 KULTUR BAZKUNAK

Onoizagaren Europako Jarduera
 Europar Batasuneko Ondare Kulturala

Agurak
 GIPUZKOA

Hernaniko Galarreta parean dagoen merkatalgunea eta Belartzakoa lotu zituzten, protesta ekitaldian. **AJURRI**

Baserritarrak, esnean itota

Esne Martxa egin dute berriki baserritarrek, lehen sektorearen egoera prekarioa salatzen. ENBA eta ENHE sindikatuek argi adierazi dute ezinbestekoa dela esnearen gutxienezko salneurria 0,70 eurotan jartzea

Erredakzioa ESKUALDEA

Hautsak harrotu dira baserrietan, izan ere, azken hilabeteotan lehen sektoreak bizi duen egoera eskasak haserrea eragin du ganaduzaleen artean. Hori horrela, joan den asteko asteazkenean, abuztuaren 25ean, kalera atera ziren baserritarrak, ENBA eta EHNE sindikatuek deitutako Esne Martxara.

Mezua garbia zen, sektorearen nahiz produktuaren duintasuna aldarrikatzea, esne-katean pisu handia duten banatzaileen aurrean. Hori dela eta, hogei traktore eta makina bat ibilgailu bildu ziren Urbil merkatalgu-

nean, eta Hernaniko zenbait dendek (Lidl, Dia, BM...) aurretik igaro ostean, Galarretan amaitu zuten ibilbidea, hain justu, Lidl-en eta Mercadonaren parean.

Nolanahi ere, ez da lehen sektoreko kideek kaleak hartu dituzten lehen aldian. Artzainetatik hasi eta haragi-ekoizletara bitarte, hamaika lagun bildu ziren ekainaren 14an Donostian, pentsuaren eta beste hainbat produktuen (argindarra, gasoleoa...) prezioaren igoera salatzen helburuarekin. Azken mobilizazioan, berriki, esnean ipini dute begirada:

“Banatzaile-kateek kateatzen gaituzte”, “baserritarrok, esnetan itota”, zioten beren aldarrikapenek.

Azken asteotan, bost banatzaile handirekin (Lidl, Mercadona, Eroski, Carrefour eta Uvesko enpresekin) bildu dira EHNE eta ENBA. Azken sindikatuko zuzendari da Iñaki Goenaga urnietarra: “Badakite gaizki jokatzeko ari direla, baina beraientzat produktu *gantxo* da esnea; ondorioz, ez zaie gehiegi axola galerak izatea”. Ildo beretik, sindikatuek azaldu dutenez, ito egiten dituzten baserritarrak banatzaileen salneu-

ri baxuko politikak, eta esnekatea are prekarioagoa bihurtu.

Duintasuna, besterik ez

Euskal Autonomia Erkidegoko mugetatik harago jo du auziak, beste hamaika lekutan ere egin baitira mobilizazioak. “Jakinararen gainean ipini ditugu banatzaileak jada”, adierazi du Goenagak, “egoerak horrela jarraituz gero, guk ekoiztako esnerik gabe geldituko dira hainbat hilabeteren buruan”.

Orain bizpahiru urte hasi zen afera, hain zuzen, baserritarrek banatzaileei etekinak zein lan baldintzak oso eskasak zirela jakinaraztean. Hala, tentsioa ministeriora ailegatu zen 2020. urtean. Dena dela, eztabaidak ez zuen luze biziraun, osasun-krisiaren etorrera medio.

Pandemiak pandemia, burubelari aritu dira lanean lehen sektoreko kideak; alabaina, ez dute inolako prezio igoerarik antzeman, nahiz jakin azken urtean esnearen salmenta izugarrizkoa izan dela. Duintasuna eskatzen dute, beraz, baserritarrek, eta esnearen balioa 10 zentimo igotzea, alegia, 0,58 eurotik 0,70 eurora.

Hari horri tiraka, Espainiako Ministeritzako Prezioaren Beha-



Iñaki Goenaga urnietarra.

"BADAKITE GAIZKI JOKATZEN ARI DIRELA, BAINA AMU BEZALA DARABILTE ESNEA"

"HORRELA JARRAITUZ GERO, GURE ESNERIK GABE GELDITUKO DIRA"

IÑAKI GOENAGA, ENBA SINDIKATUA



Bi sindikatuen azalpenak

Hiru puntu nabarmendu dituzte ENBA eta EHNE sindikatuek, banaketa-enpresen rolaren berri emateko, baita enpresa horiek erabakietan duten garrantziaz jabetzeko ere:

- Espainiako Estatuan saltzen den esnearen %92 antolatutako hainbat merkataritza- edo banaketa-guneetan egiten da (Eroski, Carrefour, BM, Lidl...), hau da, ia esne guztia banaketa-enpresen eskuetatik igaro ohi da kontsumitzaileengana iritsi aurretik.
- Espainiako Ministeritzako Prezioen Behatokiak egin berri duen azterketak, esnearen prezioa orain gutxi

0,68 eurotan finkatu du (2020. urteko udazkenean pentsuak izandako igoera kontuan eduki gabe).

- Espainiako Estatuan saltzen den esnearen %45, 0,60 euro azpitik saltzen da, hots, Behatokiak ezartzen duen salneurriaren 0,08-0,10 euro azpitik. Bestalde, banatzaile markek (marka zuriek) duten pisua da egoera eskasaren erantzule, esnearen %56a berena baita.

Gauzak horrela, bi sindikatuen esanetan, lotura zuzena du lehen sektoreak bizi duen egoera eskasak banaketa-enpresen esne salneurri baxuarekin.



Antzinako garaia biziberritu zuen hainbatek, bere proposamenarekin. AIURRI

tokiak orain gutxi egindako ikerketa bati eutsi dio ENBA sindikatuko zuzendariak, beren eskakizuna indartzeko. Txostenaren arabera, 0,70 euroan egon behar da, gutxienez, esnearen balioa, inongo galerarik izan ez

dadin. “Horixe eskatzen dugu guk, azterketa horren emaitza, ez gehiago, arnasa hartu ahal izateko”, gehitu du Goenagak.

Banatzaileak aurrerapausoak ematen hasi badira ere, txikiak dira sindikatuen arabera; on-

dorioz, kalean jarraituko dute: alde batetik, banatzaileek esnekate osoko kostuak estaltzeko moduko salneurriak ezar ditzaten, nork bere merkatu kuotaren araberako ardurarekin; eta, beste alde batetik, esnearen

gutxieneko salneurria duina izateko. Bide beretik, Euskal Herriko kontsumitzaileei erantzukizunez jokatzeari eskatu die sindikatuek, “esne duinaren aldeko apustua” egin dezaten. “Udazken honetan behin baino

gehiagotan tokatuko zaigu baserriko eginbeharrak une batez utzi eta kalera ateratzea”, ondorioztatu du Goenagak, “beste irtenbiderik ez daukagu eta. Tentsioan dago soka; horri eutsi behar diogu orain”.



Urmuga ekimeneko artistak; tartean, Aitor Mendiluze andoaindarra. AIURRI

Ekimen poetiko-politiko

Mendizaletasuna eta musika uztartzen dituen Urmuga jaialdi ikusgarriak geldialdia egin zuen Otietan eta musikari handiez gozatzeko aukera eduki zuten herritarrek. Urmugazaleek beste urtebete itxaron beharko dute jaialdiren betiko xarmaz gozatzeko

Mikel Arberas ANDOAIN

Urmuga jaialdi ezaguna ospatu zen Otietan iragan uztailaren 23an; mendizaletasuna eta musika uztartzea xede duen musika jaialdi ikusgarria da. Antolatzaileek adierazi dutenez, “udan, egun batzuez, mendirik mendi, Euskal Herriko ez-muga hori zeharkatuz, kulturaz eta mendiaz gozatzeko modu bat da Urmuga. Esperientzia horrek, baina, berez dakar herrigintza, saretzen da euskal kultura, sortzen ditu harreman sozialak, kulturalak, politikoak...”.

Otietan eguraldi kaskarra egin zuen arren, giro bikaina sortu eta emanaldi polita eskaini zuten Aitor Mendiluzek, Xendarineko Ahizpek, Idoia Asurmendik, Niko Etxartek eta Juantxo Arakamak, Et Incarnatus orkestraren laguntzarekin. Nabarmendu

**URMUGAK KEINUA
EGIN NAHI IZAN ZION
MARTIN UGALDERI,
MENDEURRENA
BETEKO DEN URTEAN**

beharra dago Aitor Mendiluze andoaindarrak bi saio egin zituela hitzorduan. Esanak esan, herritarrek ikuskizunaz gozatzeko aukera paregabea eduki zuten Andoaingo paraje ikusgarrian.

Ez hori bakarrik, Castillo Suarez idazleak Ugalderekin omenez, berak idatzitako testua irakurri zuen, Et Incarnatus orkestraren laguntzarekin; memento berezia eta hunkigarria izan zen. Urmugak keinua egin nahi izan zion Martin Ugaldere, bere jaiotzaren mendeurrena beteko den urtean.



Herritarrek Mendiluzeren bertsoaz gozaten. AIURRI



Juantxo Arakama Glaukoma taldeko abeslaria. AIURRI



Unai Ormaetxea da "Frontona" ikuskizuneko partaideetako. AIURRI

"Frontona", umorea ardatz duen ikuskizuna

Antzerkia, pilota partida, kultur lehiaketa... Ez da erraza "Frontona" ikuskizuna definitzea, baina zapore gozoarekin utzi zuten Goiburuko emanaldira hurbildu zen ikusletoa

Erredakzioa ANDOAIN

Iñaki Urruzolak zuzenduta, frontoian hara eta hona ibili ziren Janire San Sebastian, Anne Maiza, Unai Ormaetxea, Josu Artutxa eta Iñigo Otaegi aktoreak. Ikusletoarekin elkar eragin zuten uneoro, bikain asko lortu ere. Euskal Herriko kulturaren ezagutzan sakontzea helburu

zuten hainbat galdera eginez batera, umorea barra-barra erabili zuten eta ikusleen barrengararak eragin.

Gainera, ikuskizunean, Euskal Herriko kultur erreferentziak ez ezik, tokian tokikoak ere erabiltzen dituzte. Ikuskizun guztiak dira elkarren diferentek, eta Goiburu auzoan eskainita-

koan, etengabeak izan ziren auzo horrekin zein Andoainekin lotutako aipamenak: auzoko baserri eta jatetxeak, auzorako errepide malkartsua, Andoaingo idazle eta musikariak... "Frontona" ikuskizuna inguruko herrietan eskaini dute udan, eta udazkenean jarraipena izango du.



Bigarren urtez jarraian kalejira egin zuten txistulariek. AIURRI

Txistularien kalejira eta hildakoen omenezko meza

Bigarren urtez jarraian, ez ohiko San Roke eguna bizi izan dute auzotarrek

Erredakzioa ANDOAIN

San Roke egunaren baitan, eta bigarren urtez jarraian, Olagain txistularien elkarteko kideak kalejiran ibili ziren auzoan. Garai bateko San Martin parrokitik egungo elizainoko ibilbidea egin zuten, aurtan hil diren auzotarrak gogoan hartzeko.

Martin Gorostidi, Ramon Jaurigi, Hilario Baztarrika, Martin Bitoria eta Antonio Azpillaga gogoan eduki zituzten, bereziki. Aiurri.eus gunean Demetrio Iriarte konposatzailearen "Alkar pieza" ikus daiteke, Buruntzatik Kaletxikirako bidean zihozazenean.



Kalejirarekin eta mezarekin auzotarrak gogoan hartu zituzten. AIURRI

San Esteban jaiari eusteko argazki-erakusketa

Abuztuaren hasieran jaiei loturiko argazki-erakusketa ikusgai izan zen Goiburuko pilotalekuan

Erredakzioa ANDOAIN

San Esteban Jai Batzordeak antolatuta, iraganeko San Esteban jaiei lotutako argazki erakusketa ikusgai izan zen frontoian. Iragan mendeko 30eko hamarkadakoak ziren zaharre-

nak, eta azken urteetan ateratakoak berrienak. Goiburuko auzotarrek zein kanpotik bertaratutakoek San Esteban jaiak nola ospatu izan dituzten erakusten zuen irudi sortak, izan zuri-beltzez, izan koloretan.

Dozenaka ziren ikusgai jarritako argazkiak, atzoko eta gaurko joerez jabetzeko baliagarria,

Erakusketa abuztuaren hasieran ospatzekoak ziren jaien ordeztatu zen kultur ekitaldietako bat izan zen. Jairik ezin da ospatu, eta horiek gabe komunitateak galera handia bizi ohi du. Jaiak komunitatea trinkotzeko funtzio garrantzitsua betetzen baitu. Aurtengoan auzotarrek jaiaren inguruan biltzeko aukera izan dute, besterik ez bada argazkien bidez.



Auzotarren interesa piztu zuen argazki-erakusketak. AIURRI



Uztailaren amaiera aldera egin zuten eskertza ekitaldia. AIURRI

Fideltasunari eskertza eta aitortza

25 eta 50 aldiz odola ematera iritsi diren Urnietako lau odol-emaleei esker ona adierazi zieten, uda honetan. Izaskun Miner odol-emaleen ordezkariak izugarri eskertu zuen urte hauetan euren laguntza eta prestutasuna.

Irune Alfonso URNIETA

Uztailan omendu zituzten herrikideak lau izan ziren:

- Maria Dolores Arregui Arizaga, 25 aldiz eman du odola.
- Agustin Ramos Serrano, 25 aldiz eman du odola.
- Laura Vicente Lozano, 25 aldiz eman du odola.
- Joseba Albisu Goienola, 50 aldiz eman du odola.

Ekitaldi xumea izan zen, eta bertan Izaskun Minerrek izugarri eskertu zuen urte hauetan jaso duten laguntza. Udalaren ordezkari gisa, Jorge Segurado alkatea eta Luke Goñi Gizarte zinegotzia izan ziren ekitaldian.

Saio berria, datorren astean

Odola emateko saio berria izango da irailaren 10ean, ostirala-

rekin. Lekaio kultur etxean izango da, 16:30ean hasita. Azken hilabeteetan bezala, ezinbestekoa izango da hitzordua hartzea. Horretarako, txanda hartzeko ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 943 00 78 85.

Koronabirusa dela eta, sintoma susmagarririk izanez gero ez bertaratzeko erregua egin dute.



Maria Dolores Arregui Arizaga. AIURRI



Agustin Ramos Serrano. AIURRI



Joseba Albisu Goienola. AIURRI

Ika-mika Atxagaren oharraren inguruan

Gobernu taldeak Atxaga gogoan hartu zuen. Oposizioa moduekin kritiko agertu zen

Erredakzioa URNIETA

Jorge Seguradok Ramon Atxaga alkate ohia gogoan hartu zuen uztailaren 23an hil zen, 1963 eta 1973 urteen artean alkate izan zelako, eta hura gogoan hartu eta senideei doluminak helarazi nahi dizkiogu". Heriotz-oharra argitara eman zuten egunkari batean, Udalaren eta langileen izenean sinatuta. Eta horrez gain, aipamena egin zuten webgunean. Honen harira, EH Bildu eta PSE-EE kritiko agertu ziren.

Ainara de Miguel EH Bilduko bozeramaileak desadostasuna agertu zuen: "Gure izenean garai hartako lan bat txalotu duzue, guri galdetu gabe. Memoriaren izenean, ez gatoz bat gure izenean argitaratu duzuen testuarekin".

Herme Gonzalez PSE-EEko bozeramaileak ildo beretik sakondu zuen: "Errespetu osoa merezi digun pertsona da Atxaga, baina prentsan haren balioak nabarmendu dituzue eta udalerrian denak ez datoz bat iritzi horrekin".

Mikel Pagola EAJ-PNVko bozeramaileak ez zela inolako intentzio txarrik egon adierazi zuen: "Sinpleki, alkate lanetan aritu zen pertsona gogoan harzteza".

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ate batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goieta Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGINDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

Urnietako
udala



Jose Luis Fernandez *Fitero*, Pako Perez eta Pako Bidasoro Santa Krutz elizan, 2019ko Santa Zezilia egunean Gora Kaletxiki bandak omenaldia jaso zienean. AIURRI

Hildako musikariak gogoan hartu zituzten

Andoaingo musikaren mundua doluz jantzi da azken asteetan, Jose Luis Fernandez *Fitero* eta Pako Bidasororen heriotzarekin. Fernandez abuztuaren 10ean hil zen, eta Bidasoro abuztuaren 24an

Xabier Lasa ANDOAIN

Fernandez eta Bidasoro bonbardino joleak ziren, Gora Kaletxiki txarangako kideak; *Fiterok* Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandako partaide ere bazen. Andoainen frankismoak zapal dutako biktimen alde urtero antolatu ohi den omenaldi ekitaldian ere ez zuten hutsik eginen, Banda Errepublikanoko

kide gisa. *Fitero* Donostiakoa zen, eta 86 urte zituen; Bidasoro, berriz ibarrarra zen, eta 80 urte zituen. Biak ere musika eta doinuak zainetan daramatzaten musikariak ziren; musika jotzea eta musikarekin balaitasuna zabaltzea, nonahi eta noiznahi gogoko zutenak alegia.

Musikari bezala, ohiko ikasketak egin ostean kalean hezitua

ziren batez ere; bikain asko eza gutzen zuten txarangen mundua.

Bikotea euren inguruan seriotasuna eta umorea transmititzeko orduan izan zen berezi-bereziak. Seriotasuna, musika jende aurrean jotzerako orduan; eta umorea, ezaugarri hori sekula ez delako galdu behar musika eta festa lotzen dituzten ekitaldi eta ospakizunetan.

Azken agurrak

Beraiekin batera urtetan jai eta ospakizun berezietan bidelagun izan zituzten musikari franko bildu zen azken agurrak eskaintzeko asmoz, heriotzak gertatu eta hurrengo egunetan.

Hain zuzen ere, Errekalde zein Oriako beilatokietan *Agur Jau-nak* interpretatu zuten; abuztuaren 26an, berriz, Fiteroren senideek eta lagunek antolatuta, Paseo Berrian, Jorge Oteizaren Erakuntza Hutsa eskulturaren ondoan haren aldeko ekitaldia egin zen. Andoaian eta Hernaniko musikari ugari ez ezik Joxelontxos txarangako zenbait kide ere bertaratu ziren Paseo Berriko ekitaldira. Musikariek, *Fiterok* gogoko zituen *El Silencio* eta *Eusko Gudariak* piezak jo zituzten, eta Joxe Mari Oizartabal zuzendari zutela *Agur Jau-nak* interpretatuz amaitu zuten ekitaldia.

Omenaldiak jasotakoak, iraganean

Azken urtetan, Fernandezek eta Bidasorok esker oneko omenaldiak jaso zituzten Andoaingo musikarien eskutik.

Lehenbizikoa, 2012ko Santa Zezilia egunaren inguruan izan zen, Udal Musika Eskolako Bandaren eskutik. Bandaren mendeurrenaren ospakizunean hain zuzen ere, lau kide nabarmendu zituzten: Luxio Aranburu, Jesus Mari Beristain, Juan Omeñaka eta Jose Luis Fernandez *Fitero*.

2019ko Santa Zezilia egunean baita ere, Gora Kaletxiki txarangak esker oneko omenaldia eskaini zien bere hiru bonbardino jole eskarmentatuei; alegia, Jose Luis Fernandez "Fitero"ri, Pako Perezi eta Pako Bidasorori.

Gora Kaletxiki txaranga atsekabea gainetik kendu ezinik dabil azken aldian, gogoan hartu behar baita aurrez, 2020ko urriaren 13an, hirugarren kidea zendu zela, Luxio Aranburu hain zuzen. Kolpe latza jasan du txarangak, baina bere kideek adierazi dutenez, tinko eusten diote 2003an sortu zutenean hartu zuten konpromisuari: Andoaingo herriari eta bere herritarrei musikarekin lotutako kultur eskaintza eskura jartzea. Argi dago ezinezkoa dela ordezkatzera Aranburu, Fernandez eta Bidasororen gizatasuna eta maila profesionala, baina txarangak gaineratu du jakingo duela nahigabeei aurre eginen. Andoainen gazteen artean musikaren lanketak osasun ona dauka, eta galerak belaunaldi berriekin ordezkatzeko saiatuko direla uste dute. Alde horretatik, ziurtatu dute eskuartean zenbait egitasmo badauzkatela etorkizun hurbilari begira, gogoz baitaude herriko musika zaleei emankizunak eskaintzeko, pandemiak eragindako ia bi urteko etenaren ostean.

"MUSIKA DOINUAK ZAINETAN DARAMATZATEN MUSIKARIAK ZIREN BIAK ERE"

"MUSIKARI FRANKO BILDU ZEN AZKEN AGURRAK ESKAINTZEKO ASMOZ"



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduko datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN

w w w . a i u r r i . e u s



andoaINDARRA
euskaraz



Andoaingo Gudua irailean antzesten zen, COVID-19 aurreko garaian. AIURRI



Jon Unanue. AIURRI

Emakumeak Andoaingo Guduaren labirintoan

Hilaren 10ean irekiko ditu ateak "Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira" erakusketak. Andoaingo Gudua gogora ekartzeaz gain, emakumeak omentzea du xede Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren egitasmoak

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Garaileak eta garaituak daude gerretan; lubakiak, odola; etxera bizirik itzulitakoak, eta erdibidean eroritakoak, deserrira joandakoak. Nolanahi ere, bada gudan

tiro hotsetik harago doan kru-deltasunik. Hala, zirrikitu horri eutsi dio aurten Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, irailaren 10ean irekiko den "Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta

bertan ari dira" erakusketarekin: ohiturak hala eskatuta, 1837. urtera egingo dute herritarrek atzera salto, hain justu, irailaren 14ra, Lehen Karlistaldian izandako Andoaingo Gudura.

Nolanahi ere, aurten, beste formatu batean egingo diote keinu herrian hain berezia den hitzorduari. Gerraren sufrimendua ez zen soilik lubaki ertzean sentitu, zeren emakume askok egin baitzuten atsekabearen aurka borroka, lehen lerroan egon gabe: bakarrik, eta baserriaren nahiz familiaren zama bizkar gainean hartuta. Hala, isilpeko bortxak ekarritako suminari aitortza egiteko asmoz ondu dute erakusketa, Jon Unanue Bazkunako zuzendariaren esanetan: "Aditzera eman nahi genuen erregeetatik eta dominetatik harago emakumeak ere izan zirela tartean gerran; hor ere sufrimendua egon zela, sarri gizonezkoek bizi izan zutena baino latzagoa". Bide beretik, erakundeko kideak gehitu du erakusketa ere badela omenaldi bat, antzezlanaren atzean dagoen emakume orori, jostunetatik hasi eta irudien ilustratzaile bitarte.

Hilaren 10ean irekiko ditu ateak erakusketak, eta guduaren zein garaiko testuinguruaren erretratu orokorraren berri izateaz gain, orain arte egindako herri antzerkien erreposoa ezagutzeko tartea izango dute ikus-

leek, kartelen bidez. Labirinto gisa irudikatu dute proiektuaren muina jasotzen duen atala, 'Emakumeak gerraren labirintoan': hamar geldialdiko bidaia da, garai hartako emakumeek aurre egin behar izan zituzten hamar auzi lantzen dira. Jostunen lanategia ere izanen da, eta bertan, urtez urte antzerkia janzteko lanetan buru-belarri aritu diren jostunak ere egongo dira. Horrez gain, bisita gidatueta, oholtza gainera igoko dira aktoreak, obraren pieza txiki bat taularatzeko. Bertsotarako tartea ere egongo da, "garaiko herritarrengandik dagoen lekukotzarik hurbilena".

Osasun-krisiak hala baldintzatuta, aurten ez da herrian antzerkirik izango. Horregatik egin dute erakusketa: Andoaingo Guduari keinu bat egiteko, baina, batez ere, Unanuek dioenez, "emakumeen partaidetza azaleratzeko, bai garaiko gudan, bai hori irudikatze sortutako obraren antolakuntza-lanetan".

"ADITZERA EMAN NAHI GENUEN EMAKUMEAK ERE IZAN ZIRELA GERRAN"

JON UNANUE, MLKB-EKO ZUZENDARIA

Bisita gidatuak

- **Irailak 10:** euskaraz.
 - **Irailak 18:** euskaraz zein gaztelaniaz.
 - **Irailak 25:** euskaraz.
- ERAKUSKETA ZABALIK:
Astelehenetik ostiralera:
18:30-20:00.
Larunbatetan: 10:30-13:30
/ 18:00-20:00

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Erraza da labirinto batean sartzen; zaila, ordea, bertatik ateratzen, ez baita lan makala irteerarako bidearekin asmatzen. Bada, orain bi mende, bide bihurtunetsuetan galdu ziren emakumeei erreparatu die Garbiñe Ubeda idazleak eta ilustratzaileak. Andoaingo Gudua abiapuntu, "Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira" erakusketa izanen da aurki. Hala, irudiz adierazi ditu 1837. urteko irailaren 14aren bueltan Andoainen bizitako sarraskiak.

Horretarako, lerro artean irakurtzen den historiari eutsi dio Ubedak, baserriaren zein familiaren zama soinean eraman zuten emakumeen istorioak irudi bidez kontatzeko.

Erronka handia izan al da gerraren krudeltasuna irudikatzea?

Ez naiz irudi *gore* baten bila aritu. Panelek bestelako gordintasun bat irudikatzen dute, alegia, ez dira soilik gerretan jakinak diren bidegabekeriak agertzen (bahiketak, bortxaketak, besteak beste). Horrez gain, egunerokoari lotutako gauzak ere esaten dira, eta hori ilustratzea izan da onena: ebidentegia izateagatik inoiz oroitzen ez dugun egunerokoari erreparatu diot, garaiko emakumeen begiradatik.

Gerraz mintzo garenean mundua gelditzen dela dirudi, gizonak elkarren kontra egitera joan direlako, baina bizitzaren gurrupilak aurrera darrai. Hala, garai hartan, izugarritzko lana eskatzen zuten baserriek (mekanizatu gabeek), eta emakumeen esku gelditzen zen horien ardura, batez ere. Emakumeak, agureak eta haurrak. Horiexek ziren gerratik kanpo gelditzen zirenak, eta horien gain (batez ere, emakumearen kasuan) jausten zen zama osoa: baserriarena, zaintzarena, oso-osorik bere gain. Hori ikustaraztea ikaragarria da, beste edozein gerra irudi baino askoz indartsuagoa.

Garai bateko irudiak ikusiz gero, idiliko gisa marrazten zaigu baserria: gizonetako ikusten ditugu animaliekin, goldearekin. Emakumeak, oster, beste zeregin batzuetan, etxe zokoan. Erronka handia izan da, beraz, ilustrazioak egitea: emakumea, haurra bizkarrean eutsita, iditik tiraka eta baserriaren zama gutxi soinean daramala.

"Ikusarazi ez zaigun horretan ipini dut nik ahalegina"

GARBIÑE UBEDA GOIKOETXEA IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEA

"Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira" erakusketan, irudi bihurtu ditu Ubedak gerrari buruzko kontaketa, garaiko emakumeak abiapuntu



Ikusbera, Plazan Bazan eta komiki-tira egiten ditu Aiurriko Garbiñe Ubedak. AIURRI

Gerran bizitako isilpeko bortxari eman diozu garrantzia.

Horixe izan dut helburu, ikustaraztea gerra ez dela tiro hotsa soilik. Gerra guztia da; gerra da gosez hiltzea zure senarra bando jakin batekin joan delako lubakietara; gerra da jabetzea zure bizilagunek ez dizutela ezertan lagunduko zure senarrak (eta ez zuk) ideologia jakin bat duelako; gerra da zure familia aurrera ateratzeko ezinean egotea ingurukoen ezinikusia atzetik jarrika daukazula. Hori ere izugarritzko biolentzia da.

Bada, biolentzia hori irudikatzea gordina bezain emankorra izan zait. Erakusketako beste hainbat paneletan, bortxaketez, sasikumez hitz egiten da. Beharbada, horiek ezagunagoak egiten zitzaizkidan. Ikusarazi ez zaigun horretan ipini dut nik ahalegina. **Irudiotako aurpegietan, tristura eta sumina dira nagusi. Ez zen garai erraza egunerokotasun gordin horretara kondenatutako emakumeentzat.**

Haserrea baino gehiago, ezina saiatu naiz irudikatzen.

Historian emandako guda askoren adibide da Andoaingo Gudua. Gizonek pairatu ez zuten sufrimendua jasan behar al izan dute emakumeek emakume izate hutsagatik?

Kondenatuta egon dira, genero rol banaketagatik. Bestalde, umeek ere sufrimendua pairatu zuten; horiek ere baserriko lanera lotuta egon ziren, haurtza-

roa ere lapurtu zitzairen. Gauza bera agureekin, zahartzaroarekin. Politena ikuspegia aldatzea izan da, alegia, gizonei begira egon beharrean, gerra emakumeen azaletik erakustea, rol jakina zeukatenez gero. Hori horrela, ezusteko atsegina izan da lana niri eskatzea, ohorea.

Gaiak ematen du zer esan eta zer hausnartu.

Erakusketa, bere sinpletasunean, oso bisuala da. Oso ondo lortzen du gaia egunerokotasunera ekartzea eta gerra sentimenduetatik erakustea, hots, ez izatea orain arte jaso dugun azalpena: hilda-koak, zenbakiak, garaipenak, inbasioak eta abar. Gainera, ziur aski, nahiko era unibertsalean dago azalduta, izan ere, 1837. urteaz ari gara, baina, egun, biolentzia horrek jarraitzen du, garaira moldatuta bada ere.

Aipatu duzu modu jakin batean hitz egiten dela historiaz. Liburuetan zein leku dute emakumeek zein zuk erakusketan hizpide duzun egunerokoak?

Espazio murrizta izan dutelakoan nago. Ez nago oso eguneratuta eta ez dakit eskolan zer erakusten duten. Dena den, nik badakit zer ikasi nuen, eta horrelakorik ez genuen irakurri. Ikuspegi bakarretik lantzen da historia. Zenbaitetan, badirudi ez dela emakumerik izan, gerra gizonek bakarrik pairatu zutela dirudi maiz. Ondorioz, erakusketa honek ikuspegia aldatzen eta historiari beste modu batean erreparatzen laguntzen du.

Garrantzitsua al da, beraz, horrelako proiektuak egotea?

Bai, jakina. Historia gauza astun eta zahar bat izan da guretzat eskolan; hori horrela, erakusketa, bere sinplean, askoz ere argigarriagoa izan da. Historia liburuek piztu ez didaten interesa piztu diot erakusketak. Gehiago jakin nahia.

Emaitza tamaina handian aurkeztuko da. Gogotsu al zaude ikusteko?

Bai. Aspaldian beste modu bateko formatuan aritu naiz, Aiurriko Ikusbera gehigarrian, hala nola. Proiektu honek estiloa aldatzea eskatu dit; hori ere aberasgarria izan da. Gustura sentitu naiz molde aldaketan, eten-gabe aldatzea dut gustuko. Aukera ona izan da arkatza eta eskua beste modu batera moldatzeko, estilo propioa bilatzeko, eta hori ez da erraza izaten.

Bestalde, historia kontatzeko erreferentzia polita da komikia.



Anne Fernandez Diez gaztea. ITURRIA

"Amalurraren koloreak lortzen dira tindagai naturalen bidez"

ANNE FERNANDEZ DIEZ TINDAKETA NATURALA LANTZEN DUEN URNIETARRA
Etxeko maindire zahar batekin hasi zuen tindagai naturalen bidea. Lurraren usainak zein koloreak hilezkor bihurtzen ditu kotoizko oihaletan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Oztopoak baino gehiago, aukerak eman dizkio pandemiak Anne Fernandezi: egunerokotasunean erabiltzen dituen produktuei zukua ateratzen ikasi du. Tindaketa naturaletan trebea da urnietar gaztea, eta unibertsitateko azken proiektu gisa hasi zuena erronka pertsonal bihurtu du. Motibazioa eragiten zion gai baten bila aritu zen, harik eta tindagai naturalekin topo egin zuen arte. Hori horrela, horren gaineko informazioa bilzen hasi zen: oso erraza da etxean egiteko, baita bideragarria ere. Bi aldiz pentsatu gabe, horri eutsi zion, beraz.

Proiektuaren muina, tindaketa naturala. Abiapuntua, minbizia. Zein lotura dute ustez harremanik ez duten bi gaiak?

Zapi onkologikoak oso simpleak direla jabetu nintzen: guztiak dira burua estaltzeko nahiz azala babesteko. Hala, etiketatu egiten du zapiaren erabiltzailea, gaixo dagoela jakinarazi gainerakoei. Hortaz, premia hori aseztea izan dut xede, hots, zapi bat egitea, praktikoa bezain estetikoa eta jasangarria, edonorentzat.

Alde estetikoari erreparatzeko baliagarria izan ez ezik, balio batzuei lotuta lan egiteko aukera ere eman dit proiektuak: tindaketa naturala jasangarria da inguruarentzat, baita gizakiaren osasunarentzat ere; oso aproposa da minbizia duten pertsonentzat edota azal sentikorreko jendearentzat. Finean, lehengai naturalak erabiltzeak ez du azala kaltetzen eta onuragarriak dira ongizatea bermatzeari begira; te gorriak, esaterako, izpi-ultramoretatik babesteko gaitasuna du.

Oihalekin nahiz koloreekin jolasean hasi aurretik, lan handia egin behar izan zenuen.

Gugandik oso urrun dagoen mundua da. Kimikako tesiak irakurri behar izan ditut, izan ere, ez dute lehengai guztiek tindatzen, hots, sustantzia kimiko baten beharra dute oihalean irauteko. Lanaren erdia baino gehiago ikerketan eman dut; irakurri, irakurri eta irakurri: kimika, tindagai naturalak, oihalgintza, mordienteak... Hortaz, garrantzitsuena informatzea izan da, gerora eman beharreko pausuak ondo eman ahal izateko. Zapiak tindatu aurretik, esaterako, esperimentazio-prozesua egin nuen. Ehun zati txikiak tindatzen nituen, koloreen

intentsitatea neurtzeko nahiz lehengaien kopuruari neurria hartzeko.

Oihal zein lehengai bereziak behar al dira tindaketa naturalerako?

Oihal onena banbu ehuna da. Anti bakterianoa da, batetik; izpi-ultramoretatik babesten du, bestetik, eta, azkenik, termoregulatzailea da. Onkologoek gehien gomendatzen duten ehuna da. Erosteke ahalegina egin nuen internet bidez, baina webgune arraroak ageri ziren soilik. Ondorioz, irakaslearekin bat etorrita, etxean nuen kotoizko maindire zahar batekin egitea erabaki nuen, ez bainekielako zein prozesu bizi behar izango zuen banbuak nire eskuetara iritsi baino lehen.

Hala, kotoiaren gainean jatorri begetaleko tinte naturalak erabili zenuen.


Hori da. Jatorri mineralekoak zein animalia jatorrikoak ere erabiltzen dira: Mexikon, adibidez, ohikoa da tindagai naturalen erabilera, eta kotxinilla intsektua erabiltzen dute.

Kotxinillatik askotariko ezpainetako gorriak lortzen dira, karmín koloredunak, besteak beste. Garestienak eta prestigio handiena dutenak kotxinillarekin sortutakoak dira, sintetikoki lortu ezin den bizitasuna dutelako intsektua erabilita eskuratutako kolore gorriek. Nire kasuan, itxialdi betean nengoela kontuan hartuta, egunerokotasunean erabilitako lehengaiak baliatu nintzen: orotara, hamai-ka lehengai erabili ditut, eta bakoitzetik (askotariko mordienteak erabilia) lau kolore ateratu ditut.

Itsu-itsuan murgildu nintzen proiektuan. Goizero-goizero, jai-ki berritan, balkoira joaten nintzen aurreko egunean tindatutako oihal zatiek zein kolore hartu zuten ikusteko irrikaz. Ezusteko hutsa zen, ez baitago zure esku. Aitzitik, makina bat gezur dago: marrubiek tindatzen dutela diote askok, adibidez. Koloreak ez dira biziak, eta hori onartu egin behar duzu.

Koloreak sortzen dituzu, baina horiek oihalean iraunarazi behar dira. Nola egin hori?

Mordentazio-prozesuaren bidez. Azidifikazio-maila altuko substantziak erabiltzen dira, tartean, ozpina, gatza, alunbrea (minerala) eta bikarbontatoa. Horien bidez, iraunkortasuna lortzen dute koloreek. Tindagaiak mor-



Ekoizpen prozesua, irudi bidez. AIURRI

dentatu gabe ez du barrura sartzeko ahalmenik, eta, beraz, garbitu bezain pronto indarra galduko du. Ehuna mordientee-kin irakinez gero, zuntzak irekitzen zaizkio. Horrela, kolorea ehunean sartzen da, eta behin oihala lehortuta, zuntzak itxi egiten dira eta kolorea bertan gelditzen da, barruan; ez da bertatik aterako berriro mordentatu arte. Gehienbat marroiak, horiak edo naranjak lortu dituz; finean amalurraren, naturaren koloreak eskuratzen dira tindagai naturalen bidez. Lurrari oso lotuta dauden elementuak dira, eta horrexegatik ateratzen dira kolore horiek.

Hainbat garbiketaren ostean, indarra galtzen dute koloreek, eta hori gertatzen da horrela behar duelako, alegia, natura horrelakoxea delako. Ohituta gaude produktuen hilezkortasunarekin bizitzen, kontsumo azkarrean oinarritzen da gure egunerokoa.

Erremolatxarekin, esaterako, badirudi izugarritzko kolore bizia

aterako dela, baina indar handia galtzen du, antratonina-maila altua eduki ezean. Azken hori alunbrearekin nahastuz gero, koloreari iraunkortasun handiagoa emango dio. Kimika hutsa da. Ondoren, gainera, produkturen zaintza bestelakoa da: eskuz garbitu behar duzu eta jaboia ezin duzu zuzenean oihalera bota; sentiberagoak dira koloreak eta kontu handiz garbitu behar dituzu.

Zein lehengairekin lan egitea duzu zuk gustuko?

Tipularen azalarekin lan egitea gustuko dut; oso kolore biziak ditu. Bandle die teknika erabili nuen: mordentatutako oihalean tipula-azalak ipini behar dira, lotu eta irakiten jarri. Horrela, azalaren arrastoa gelditzen da. Koloregai naturalen bidezko artisau tindaketa izan zen tindaketa metodo nagusia historiaurretik XIX. mende erdira bitarte.

Zein leku dute gurean gaur egun tindagai naturalek?

Tindagai naturalak soilik zuntz naturaletan aplikatu daitezke.

Dituen ezaugarrietatik egungo moda-industrian sartu ezin den praktika da tindaketa naturala. Ezin da masan ekoitzi, banakabanaka egin behar da prozesua; ondorioz, ezin da kontsumo azkarrari bideratutako industriaren kokatu; zaila da merkaturatzen eta oso jende gutxi egiten du. **Jendeak jasagarritasunari erreparatzen dio erosketak egiten ditue-nean?**

Geroz eta gehiago. Azken urteetan sintetikorantz jotzeko joera izan dugu. Ondorioz, orain berriro lehengora itzuli nahi dugu: egun, nailona baino, nahiago du jendeak kotoia.

Hari horri tiraka, tindaketa naturala naturatik eta naturarentzat egiten den praktika al da?

Tindaketa sintetikoan hondakin toxikoak sortzen dira, eta urkopuru handia behar izaten da. Munduko Bankuaren arabera, urteko ehun produkzioaren kopurua 60-70 milioi tonelada artean dagoela kalkulatu da; horretarako, 9 mila milioi metro karra-
tu ur behar dira (3,6 milioi ige-

rileku olinpiko betetzeko nahikoa ur kopurua da hori). Aldiz, tindaketa naturalean ez duzu material berririk sortu behar lan egiteko, finean zaborretara bota behar zenituen hondakin organikoak erabiltzen dira, eta erabilitako ura ez da kutsatzen. Natura errespetatzen da eta guri onurak ematen dizkigu horrek. **Artea al da tindagai naturalekin egiten duzuna?**

Baietz esango nuke; zer da artea eta zer ez? Hasieran, ikuspegi estetikoak pisu handia zuen proiektuan, baina, orain, alderdi estetikoaz gain, zerbait funtzionalean bihurtu da, beharrak asetzen dituelako.

Prozesu sakona izan da. Irakaspenik atera al duzu?

Izugarri ikasi dut, asetu egin nau eta ezezaguna zitzaidan beste mundu bat ezagutzeko ateak ireki dizkit. Ez daukagu batere barneratuta gue bizitzan; natura errespetatzen duen praktika da, eta ez du kutsatzen. Halaber, kontzientzia hartzen laguntzen du. Artista txikiei eta

eskulangileei babesa eman behar zaie; horrelako produktuen prezioaz kezu da jendea, baina atzetik dagoen lan-prozesua luzea da. "Erabili eta bota" filosofiarekin bizi gara. Azken emaila ordaintzen dute, baina horretara iristeko denbora behar da: egun eta erdi eduki behar duzu oihala mordentatzeko; gero, tindatzen gau oso bat; lehortu ostean, plantxa pasa behar zaio, kolorea finkatzeko.

Guztia da adagarria, eta horrek xarma ematen dio. Beste bizimodu bat da, beste pentsakera bat. Bat-batekoa da, ezin baituzu aurreikusi nolako kolorea aterako zaizun zehatz-mehatz, ez eta bere estampa eta intentsitatea ere. Urtaroaren arabera ere aldatu egiten dira kolorearen ezaugarriak, loreekin eta, oro har, jatorri begetaleko lehengaietan lan eginez gero. Gure ohiturak sakoneraino ditugu mekanizata, eta tindaketa naturala guztiz kontrakoa da: ez duzu zuk kontrolatzen, berak kontrolatzen zaitu zu.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA





Jon Iturria urnietarra Euskaltel Euskadiko stafean ari da Espainiako Vueltan. EUSKADI

“Saltsa hau gustuko baduzu ez zara nekatzen”

JON ITURRIA EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO MEKANIKARIA ESPAINIAKO VUELTAN

TXIRRINDULARITZA Espainiako Vuelta osatzen ari da urnietarra, bere lehen itzuli handia; jo eta su aritzen da eguzkia irteten denetik, sartu arte

Andoni Urbistondo URNIETA

Jon Iturriak amaren tabernako jarduna du bizibide, baina beti izan du lotura bizikletaren munduarekin; lehiatzen afizionatu mailara arte, eta ondoren mila saltsatan; hemengo delegatu, hango mekanikari, ondoko laguntzaile... Hilabete batzuk atzera, bizikleta denda ireki zuen Urnietan, baina abuztu osoa eta iraileko lehen astea etxetik urrun pasako ditu. Arrazoia? Mekanikari jarduna Euskaltel-Euskadirekin. Haien bi-

zitza nolakoa den azaldu digu Iturria anaietan zaharrenak, eta ez pentsa egunerokoa samurra denik. “Saltsa hau gustuko ez baduzu, zaila da hemen luze irautea, egunerokoa nekagarria da oso”, dio Jonek. Lehen atse-

“MEKANIKARI LAN SOILA EZ DA NEKAGARRIA, BAINA BESTE LAN ASKO EGIN BEHAR DIRA”

den egunean egina da elkarrizketa, abuztuaren 23an. Bestelakoan zaila da Jon Iturriak ordubete libratzea, lasai hitz egiteko, lanez lepo baitabil egutegiko azken itzuli handian.

Herrian ireki berri duzun dendan “itxita” jartzen du, Espainiako Vueltan mekanikari lanak egiten ari zarelako. Nola doa Vuelta?

Beno, lehen itzuli handia da niretzat. Lehenago ere mila saltsatan ibilia naiz: delegatu, laguntzaile, mekanikari edo behar dena. Txirrindularitzaren itu-

rritik edan dugunok mundu honi lotuta jarraitzeko grina izaten dugu, bizikleta gaineko bidea bukatuta ere. Nik 33 urte ditut, eta 20 urte arte bizikletan ibili nintzen. Ondoren Andoaingo eskolan, Gipuzkoa eta Euskadiko federazioetan mekaniko, delegatu, denetarik egin dut. Lehen itzuli handia da, baina Vuelta aurretik Norvegia eta Finlandian korritzen den Arctic Race lasterketa ere egin nuen, abuztu hasieran.

Etxeok ahaztuko dira zurekin...

Beno, bikotea ere saltsa honetan sartua dago, iraungo dugu. Abuztu hasieran joan nintzen Tromsø, Norvegiara, 9an bueltatu etxera, eta bi egun geroago Burgosen nintzen, Vueltako irteeran, PCR analisiak eta beste egiteko. Hilabete pasa izango da etxean bi egun jarraian egiterako.

Lehenago ere ibilia zara itzuli txikietan hainbat talde profesionalekin, baina itzuli handi bat egiten duzun lehen aldia da. Nola sortu zen proposamena?

Norvegiako eskaintza Euskaltel-Euskadi taldea aldi berean hiru lehiaketetan ari zelako sortu zen, Burgosen, Portugalen eta Norvegian. Laguntzailerik gabe geratu ziren Europa iparreko itzulia osatzeko, eta horregatik deitu zidaten. Hari baiezkua eman ostean, taldeko kirol arduradunak Vuelta egingo ote nuen galdetu zidan. Pixka bat pentsatu nuen, jabetxea, denda eta beste, baino baiezkua eman nuen.

Zergatik?

Saltsa hau gustatzen zaidalako, eta batek daki, agian ez dudalako antzeko beste antzeko eskaintzarik izango inoiz... Ekonomikoki ere bere alde ona du: soldata ziurra da, eta udazkene-nari begira koltxoi on bat lortuko dut, bizikleta dendan inbertsio batzuk egiteko bada ere. Itzulian zaudela apenas gastatzen da dirua, mantenu osoa ordainduta baitugu. Diru on bat irabazten da, ezer gutxi gastatuta.

Zer moduz moldatu zarete Covid pandemiarekin?

Orokorrean ondo, baina leku batzuetan oso zorrotzak izaten

“FAMILIA TXIKI BAT OSATZEN DUGU. TXIKITATIK DENOK EZAGUTZEN DUGU ELKAR”

ari dira. Taldeko akreditazioa ondo ikusten da autoan, baina gertatu izan zait hotelean sartzen ez uztea, agiri pertsonala ez naramalako soinean. PCR analisei dagokionez, ez digu karga handirik suposatu. Norvegiako Arctic Race lasterketan egunero PCR bat egiten ziguten, Vueltan hiru daramatzagu momentuz.

Vueltak lan erdiak egin dituen honetan, zerk harritu zaitu gehien? Nolakoa da Vuelta?

Vuelta beste mundu bat da antolakuntza mailan, aste bateko itzuli txikiekin konparatuta. Ulertze aldera, Mallorcan, Valentzian edo Andaluzian baino hiru edo lau aldiz handiagoa da baliabideen bolumena. Gonbidatuak eramateko bakarrik 40 txofer inguru daude, eta horietako asko Euskal Herriko txirrindularitza probetako antolatzailleak dira, 20-25 bai. Harritu nauen beste gauza bat, talde handiek mugitzen duten azpiegitura handia da. Groupama taldeak, adibidez, 10 laguneko staff-a dauka lasterketatik kanpo. Gure taldean masajista eta mekaniko bana gabiltza kamioiarantz lekua hartzeko etapa bukaeran, eta frantziarrek kamioi bat, kamioi tailer bat, furgoneta bat, eta ziklistek lo egiten duten koltxoiak eta almohadak eramateko beste furgoneta bat daukate. Sinesten zaila da, baina hainbat taldek euren koltxoi propioak eramaten dituzte hotel guztietara. Talde batzuk diru asko mugitzen dute. Euskaltel-Euskadi Burgosko irteeran 15 laguneko taldearekin egon zen. 11 pertsona, txirrindulariez gain: bost masajista, mekanikoak, managerra, kirol zuzendaria eta medikua. Aste bateko itzulietan, adibidez, ez da medikurik egoten.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Velefique gainean bukatu zen eguna azalduko dut, Almerian. Bi lan talde daude. Batek lasterketa egiten du, eta bestea irteerako hoteletik helmugako hotelera joaten da. Ni hoteletik hotelera doan taldean aritzen naiz, egun horretan Cartagenatik, Murztziatik, Almeriaraino, hain zuzen ere. Goizeko 07:00etan jaiki nintzen, gosalduta eta 08:00etan eguneko materiala prestatzen hasi nintzen. 24 bizikleta ditugu, hiru ziklista bakoitzeko. Auto bakoitzak 8 bizikleta eraman ditzake, eta beste hainbeste gupil. Txirrindulariak erabiltzen dituen garapenak aldatu



Mekanikari lanetan eta beste zeregin askotan ari da lanean. EUSKADI

egiten dira egunez egun, eta etaparen arabera. Velefique mendaterako 36x32 aukeratu zuten batzuk, eta 39x32 besteek. Ziklistek askatasuna dute bizikleta, gurpilak eta garapenak aukeratzeko, beti ere kirol zuzendariarekin adostuta. Bizikletak egokitze lan horrek ordu eta erdiko lana eskatzen du. Behin bukatuta, hurrengo gaueko hotelerrantz abiatzen gara bizi-bizi. Goizeko 11:00tan iritsi ginen Almeriako hotelera. Ziklistentzako logelak antolatuta nituen, iristen direnerako dena prest egon dadin, masajisten ordutegiak, ekipaje guztia txukundu, ur poteak bete ziklistei emateko... Lan handia da. 20 maleta eraman behar dira logeletara, zortzi ohatila, hozkailuak txirringularentzako meriendak sartzeko... Bazkal ordurako bukatzen baduzu, konforme, ze lan horiek bukatuta taldeko kamioia iristen da. Hark dakarrena ere antolatuta behar da. Egun batzuetan lauak jotzen dizkigute bazkaltzen dugunerako. Hotelean bertan bazkaltzen dugu, nekatuta gaudelako eta Covid pandemiarekin erosoena delako. Ahal bada etapa bukaera ikusten dugu, azken ordu erdia edo, baina Velefiquen bukatu zen etapan ura eramatera joan behar izan genuen eguneko mendate gogorrean, Venta Luisa mendatera. Poliziak ez zigun goraino pasatzen utzi, ez ginelako garaiz iritsi, eta hurrengo mendate hasieran eman genizkien poteak ziklistei. Lauak pasata bueltatu nintzen hotelera. Atsedena txiki bat, eta zazpiak aldera

bizikletak garbitzen hasten naiz. 8-9 bizikleta garbitu eta erreparatu, eta kotxeak ere egunero garbitu behar dira, lau edo bost auto. Iluntzeko 20:30etan edo bukatzen dugu, afaldu eta ohera, oso nekatuta. Hori da egunero martxa, hoteletik hotelera dagoen distantziaren baitan. Atsedena egunetan bakarrik aritzen zara lasaiago.

Eguneroko gogorra, oso...

Hala da, bai, baina gustatzen bazaizu, eta gazte zarenetik iturri horretatik edan baduzu... Lotu egiten zaitu txirringulartzak. Hau bizi izan ez duen norbaitentzat ulertezina da, baina guretzat ez, ezagutzen dugulako nolakoa den kirol diziplina hau. Mekanikaria naiz, baina garbitu egiten dut, erreparatu, presatu... Berez mekanikari lan soila ez da nekagarria, baina beste lan asko egin behar dira. **Zerk erakartzen zaitu gehien zure egunerokoan?**

Daukagun giroa. Familia txiki bat gara. Denok ezagutzen dugu elkar txikitatik. Batzuk txirringulartak dira, besteak masajistak, eta beste batzuk zuzendariak edo laguntzaileak. Ambiente ona dago. Alboan Luis Angel Mate bezalako ziklista batekin egotea gozamen da, 37 urterekin ume baten ilusioa islatzen baitu. Txirringulartari berriak ere asko dira, eta horietatik oparia da Vuelta bat korritzea.

Mikel anaia ere Vuelta korritzen ari da, harremanik bai berarekin?

Egia esan ez sobera. Bakoitzak bere ordutegiak ditu, eta txirringulartariak oso sartuta daude lasterketan.

Fitness aholkularitza zerbitzu berria Allurralden

Abonuaren prezioaren barne sartuko da eskaintza hori, hastear den ikasturtean

Erredakzioa ANDOAIN

Makinen funtzionamendua, egin daitezkeen ariketak eta teknika ezberdinak lanketagai izango dira ikasturte berrian. Aholkularitza zerbitzuari dagokionez honako xehetasunak izango ditu:

- **Entrenatzaile pertsonala:** 50 minutuko banakako saioak entrenatzaile pertsonalarekin. Bezeroarekin elkarrizketa bat egin ondoren, entrenatzaileak saioak diseinatu eta bezeroarekin batera egingo ditu. Entrenamendu programekin konbinatu daiteke.
- **Entrenamendu programak:** Entrenatzaileak banakako entrenamendu plan bat egingo du, betiere erabiltzailearen beharren eta ezaugarrien arabera eta nahi dituen emaitzak lortzeko helburuarekin (grasa galtzea, muskulu masa irabaztea, erresistentzia kardiobaskularra hobetzea, kirol errendimendua handitzea).

Zerbitzua hiru hilean behin emango da, eta besteak beste atal hauek izango ditu:

- Hasierako elkarrizketa bezeroaren helburuak jakiteko (muskulu-masa irabaztea, koipea galtzea).
- Bizi-ohiturak: Elikadura, atsedena, jarduera fisikoa.
- Entrenatzeko egun-ordutegi erabilgarriak eta abar.
- Banakako plana egitea eta ematea.

Kontrola eta jarraipena:

- Planaren atalen jarraipena (entrenamenduaren aldagaiak, atsedena, eguneroko urratsak, gorputzaren pisua).
- Zalantzak posta elektronikoen bidez kontsultatzea.
- Aurrez aurreko bilera ziklo bakoitza amaitzean: zailtasunak, hobetu beharreko alderdiak, entrenamenduaren doikuntzak...



REAL MADRID

Liga hastear da Nahikarirentzat

FUTBOLA Aste garrantzitsua izan da Nahikari Garciaren Real Madrid taldearentzat. Champions League txapelketari ekin dio astean zehar, eta igande honetan Ligari egingo dio aurre. Igandean jokatu dute lehen partida, Levanteren aurka. Goizeko 11:00tan hasiko da.



ALLURRALDE

Egoerara egokitutako neurriak

KIROLA Allurralde kiroldegia erabiltzeko hitzordua eskatzen jarraitu beharko da, baina oraingoan aforoa 60koa izango da. Eta horrez gain aldagelak eta dutxak erabili ahal izango dira. Jarduerak aurrera ateratzeko taldeak 10 pertsonakoak izango dira, eta barruan maskarilaren erabilera nahitaezkoa da.

Ganbara taldea martxan da

SASKIBALOA Ganbara taldean jokatu nahi dutenek izena eman beharko dute irailaren 15a baino lehen. Infantiletatik aurrerako gizonezko zein emakumezkoentzako deialdi irekia da. Entrenamenduei dagokionez, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan izango dira Allurralden, 18:00etatik 20:00etara. Lehiaketa irailaren amaieran abiatuko da.



GANBARA



Ansa urnietarra. UTS

Buruz-buruko lehen finala gertu du Imanol Ansak

ERREMONTEA Larunbat honetan Barrenetxearen aurkako partida erabakiorra jokatuko du

Erredakzioa URNIETA

Urnietarrak 17 tanto egin behar zituen finalerdietara igarotzeko; hori gutxi ez eta garaipena eskuratu zuen Barrenetxea hernaniarraren aurka (30-28). Aurkari berarekin lehiatuko da Ansa larunbat honetan, finalurreko partidaren.

Norgehiagoka parekatua jokatuko zuten Galarretan, amaierararte emozioa izan batzen nagusi. Hasieran Ansak segurtasun eta erasorako joko hobea erakutsi zuen, markagailuan 7 tantoko aldea lortuz. Abiada eta kalitate handiko tantoak nagusitu ziren ikusleen gozamenerako. Ansa denbora luzez aurretik egon zen arren, gutxinaka hernaniarra gerturatzeko hasi zen 17ra berdintzeraino. Memento hartatik aurrera, balantza oso parekatua izan zen, edonork irabaz zezakeen. Azken txanpan, urnietarrak tanto hobea jokatuko zituen eta garaipen garrantzitsua eskuratu zuen.

Gauzak horrela, larunbateko norgehiagoka berezia izango da: batetik, Ansak buruz-buruko lehen finalera sailkatzeko aukera edukiko duelako; bestetik, ligaxkako partida bera jokatuko duelako eta elkar oso ondo eza gutzen dutelako. Partida emozioz beterikoa izatea espero da.



Julen Gabirondo urnietarra. AIURRI

Euskal Herriko laugarren txapela soinean du

SEGA Urnietarrak txapela jantzi zuen Bizkaiko Muruetan igandean jokatuko txapelketan. Gabirondorekin batera aritu ziren Mikel Lizartza (Tolosa), Xabier Zaldua (Zumarraga), David Mariñelarena (Lantz) eta Jon Otegi (Oiartzun)

Xabier Lasa URNIETA

Julen Gabirondo Mozotegiko mutilak 1.820 kilo ebaki zituen eta bigarrenak, Zalduak, 1.696. Atzetik, Otegi, Lizartza eta Mariñelarena sailkatu ziren.

Txapelketa eguerdian jokatuko zen, eta ETB1k gauean oso-osorik emitituko zuen; geroztik ikusgai dago EITB nahieran webgunean. Ordubeteko lan saioa amaitu ostean, kazetarien galderei erantzunez, Gabirondok poza adierazi zuen lehenengo eta behin, laugarrengo txapela jantzi zuelako. Fisikoki uste baino hobeto ibili zela gaineratu zuen, izan ere Hendaian joan den asteazkenean jokatuko zuen

Bidasoaldeko pentatlo trofeoan pasada handia hartu zuen, eta sentsazioa zeukan Muruetara ez zela behar bezala iritsi. Euskal Herriko txapelketan segalariek moztu behar izan zuten belarrari zegokionez, "traketsa eta zapaldua" zela esan zuen. Ez omen zuen gozatu segan, urnietarrak. Ezin izan omen zuen bere teknika behar bezala garatu.

Zalduak egindako lan bikaina ezustean hartu zuela ere erantsi zuen urnietarrak. Azkenik, izatez "saltseroa" dela eta era guztietako kirol probatan aritzea gogoko izaten duela esan ondoren, aitortu zuen kostatzen ari

zaiola unean-unean eskuartearen daukan lanean zentratzea.

Mikel Garaialde gogoan

ETBko kameraren aurrean etxeko eta lagunaren eskuzabalatasuna eskertzeaz gain, ohi duen bezala, Mikel Garaialde lagun mina zuena hartu zuen gogoan Gabirondok: "Berak ematen dizkit indarrak".

Etorkizun hurbilean, bi hitzordu ditu urnietarrak: Sega Sail Gipuzkoako txapelketa eta IV. Mahala Euskal Pentatlo Saria. Pentatloira begira jarrita dauzka begiak batik batik; aizkoran eta harria jasotzen hobetzea dira bere erronka nagusiak.

Lehia betean, irailan

Sega Sail Gipuzkoako txapelketa

Irailak 4, larunbata

Aizarna. 12:00

- Emakumezkoak: Alaitz Imaz, Malou Henriksen, Ainara Otamendi eta Ainhoa Mazkianek hartuko dute parte.
- Gizonezkoak: Julen Gabirondo, Jon Otegi, Mikel Lizartza eta Iñigo Mercader.

Proba: Gizonezkoek 1.000 eta emakumezkoek 400 metro karratuko sailak ebaki beharko dituzte, Ohiko sega txapelketekin alderatuta, berrikuntzak izango ditu. Emaiza belar saila bukatu ahal jakingo da, azkarren moztzen duenak irabaziko du eta ez da belarrak pisatuko.

IV. Mahala Euskal Pentatlo Saria 2021

Irailak 4, larunbata

Lehen kanporaketa

Joseba Otaegi, Benat Amade, Ousman Drame, Danier España, Aritz Irababal, Unai Ardeo, Jon Unanue Goenatxo III, Xabier Urrutia, Gorka Etxeberria eta Mikel Agirre.

Irailak 9, osteguna

Bigarren kanporaketa

Lehen kanporaketako lau onenak gehi Kepa Peñagarikano, Iñaki Errazkin, Julen Kañameres, Andoni Iruretagoiena Izeta VI, Jagoba Otaegi, Aratz Mugertza, Julen Gabirondo eta Jon Gisasola Zelai V.

Irailak 25, larunbata

Finala

Aurrez sailkatu diren sei kirolariak. Egun berean emakumeen finala.



ESPAINIAKO VUELTA

AIURRI.EUS | @aiurri



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

URNIETA Udal zerbitzuak

Udal Liburutegia ostiralean irekiko dute berriro, udako ordutegiarekin. Orduetgia: 09:00-14:00.

Irailak 2: Itxita. Irailak 3: Zabalik.

ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa. 10-17 urte bitartekoentzat, lau mailatan antolatuta dute lehiaketa. Parte har dezakete Andoain, Aduna, Asteasu, Amasa-Villabona, Larraul, Urnieta eta Zizurkilgo gazteek. Informazioa Bastero.eus webgunean.

Lanak aurkezteko epea: Urriak 8.

URNIETA Udal zerbitzuak

Errefusaren funtzionamendua asteazkenetan eta igandetan bakarrik erabili ahal izango da. Merkataritza eta ostalaritzaren kasuan, larunbatean ere bai.

Irailan hasita.

ASTEARTEA 7

URNIETA Antzerkia

Juanjo Artero, Patxi Freytez, Ana Villa eta Miriam Cabeza dira "Entre Copas" antzezlaren protagonistak.

19:00, Sarobe. Gaztelania. 5 euro.

OSTEGUNA 9

URNIETA Antzerkia

Ainhoa Aierbe, Asier Hormaza, Asier Sota eta Ainara Ortega dira "Kopaz kopa" antzezlaren aktoreak.

19:00, Sarobe. Euskara. 5 euro.



Numenak ikuskizuna. AIURRI

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Numenak" haur ikuskizuna Leitzarango Otieta parkean. Basajaun, Lamia, sorgina, Gentilak... pertsonaia mitologikoez gozatzeko aukera izango da Leitzarango bailaran.

Irailak 4, larunbata. 18:00, Leitzarango Otieta parkea.

URNIETA Bertsolaritza

Helduei zuzendutako bertso eskolaren aurkezpena. Info: 669 068 388.

18:30, Sarobe.

ANDOAIN Kontzertua

Grises eta Bulego taldeak.

19:30 / 21:30, Goikoplaza.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Aurkezpena

Andoaingo Guduari buruzko erakusketaren aurkezpen ekitaldia.

18:00, Bastero.


IGANDEA 12

ANDOAIN Antzerkia

"Mesede bat egitearren" Trapu zaharra antzerki taldearen eskutik.

19:00, Goikoplaza.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Enaitz Agirre
Enaitz Agirrek 12 urte egin zituen uztaillaren 2an, zorionak ta muxuak etxekoengandik. Segi beti bezain jator.



ANDOAIN
Zorionak Ane
Uztaillaren 31n 8 urte bete zenituen. Zerbaki honi buelta ematen badiozu, zenbat maite zaitugun asmatuko duzu! Muxuak!



ANDOAIN
Leire Nuñez Larrea
Gure neska maiteak 15 urte beteko ditu abuztuak 7an. Mila zorion denon partetik.




ANDOAIN
Alaine
Olerki laburrenaren bertsorik politenak bi hitz baino ez ditu. Maite zaitugu! Etxeko partez, zorionak! 9 urte.



ANDOAIN
Enara
Abuztuaren 15ean urteak bete zituen. Zorionak Enara, 10 urte jada!! Oier, amaxo, aitaxo eta etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Iraia!
Abuztuaren 23an 11 urte! Zorionak printzesa! Muxu handi bat etxeko partetik. Maite zaitugu!



ANDOAIN
Zorionak Onintza!
Abuztuaren 2an Onintzak bost urte bete zituen. Zorionak eta muxu handiak etxeko partetik!



URNIETA
Zorionak Izaskun
Sei urte betetzen zenituen uztaillaren 22an. Muxu handiak etxeko partetik.



ANDOAIN
Zorionak Eñaut eta Itsaso
Eñautek 9 urte bete zituen uztaillaren 27an, eta Itsasok 5 uztaillaren 23n. Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri hamaboskarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732



POSTONTZIA

ANDOAINGO ASANBLADA FEMINISTA

Andoaingo Asanblada Feministaren adierazpena



Astelehen arratsaldean gure herriko emakume batek jasandako eraso matxista ikusita, Andoaingo Asanblada Feministatik berriro ere emakumeen aurkako indarkeria salatu nahi dugu. Emakumeok egunetik egunera pairatzen dugun gaitza gizarte heteropatriarkal eta matxista baten ondorioa da.

Hori guztia dela eta, ostegunean elkarretaratzea egingo dugu Goikoplazan, 19:00etan. Ez hemen ez Inon eraso matxistarik ez.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

ERAKUSKETA 2 0 2 1

ANDOAINGO GUDUA 1837/09/14



Ondarearen Europako Jardunaldiak
Jornadas Europeas del Patrimonio

Gipuzkoako
Foru Erkandea
Euzko Legearen
Batzordea



ORAIN
GIPUZKOA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

Babesle:

Antolatzaile:

Sarrera doan
Orduetgia:

Astelohenetik ostiralera: 18:30 - 20:00

Larunbatetan: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30

Bisita gidatuak

Izena emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea



MANEL
LARAMENDI
KULTUR
BAZARRA